

EAE-KO euskararen Legea > 25 urte

Aurrerapausoak, baina itzalak ere bai

Euskararen Legea indarrean izan den denboran aurrera egin dela diote euskalgintzako eragileek, baina gabeziak ere ikusten dituzte.

ASIER ITURRIAGA ETXEBARRIA
Bilbo

Hutsuneak edo gabeziak ikusi arren, oro har 1982. urteko azaroaren 24an Legebiltzarrak onartutako Euskararen Erabilera- eta Normalizaziorako Legeak aurrerapausoak ekarri dituela uste dute euskalgintzako eragileek. Besteak beste, irakaskuntza-aren munduan emandako pauso garrantzitsua azpimarratu du Ikastolen Elkarteak. Dena den, oraindik eta urrats esanguratsua- goak egiteko «aukera galdutza» ere ikusten du.

25 urteko ibilbideak aurretik egindakoaren analisia egiteko balio die euskalgintzako eragileei, eta, jakina, aurrera begirako hausnarketa ere egin dute. Irakaskuntza-aren egindako aurrerapausoak nabarmendu dituzte ikastolek, baina oraindik eta aurrerago joateko aukera galdu dela diote. Kontseiluko Xabier Mendigurenek, berriz, legea gaurko gizartearen ezaugarrietara eta errealtaterara egokitze-ko eskatu du. Era berean, legearen edukia zenbait arlotan egokia izan arren hizkuntz politikak ez direla onak izan salatu du. Bestelako hizkuntz politika eskatu du Euskal Herrian Euskaraz-ek, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza bakarra dela iritzia.

Eusko Jaurilaritza

«Erabakigarria izan da galbidean zihon euskara indarbertitzeko»

Eusko Jaurilaritzako Kultura Sail-eko koordinaziorako zuzendari Erramun Osaren iritziz, orain dela 25 urte Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Erabilera- eta Normalizaziorako Legea «erabakigarria izan da galbidean zihon euskara indarbertitzeko». Zehaztu du euskaraz jarduteko gero eta aukera zabalagoak eskaini dituela: «Administrazioan, irakaskuntza, askotariko zerbitzuen alorrean, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubide- en aitortzean, hedabideetan, in- formazio eta komunikazio tekno- logietan, eremu sozio-ekonomiko- an, aisialdian eta abarretan jarduteko gero eta aukera zabalagoak eskaintzen ditu». Hala, gero eta gizarte elebidunagoa ehuntzen lagundu duela azpimarratu du, «elkarbizitzan ekarpen onuragarria eginez».

Osak adierazi duenez, Hizkun- tza Politikarako Sailburuordetzak ez dauka Euskararen Legea alda- tzeo asmorik, «arian-arian haren garapena ahalbidetzeko baizik». Dekretuei, ebazpenei edo dena delakoei horrenbeste begiratu beharren herritarren borondate- ari begiratu behar zaiola dio. Era berean, hizkuntza politikak asko- tarikoen arteko adostasuna behar duela nabarmendu du. «Horrek prozesua motelteaz dakar, akaso, baina, aldi berean, horrek ematen dio sendotasuna, iraunkortasuna eta eragingarritasuna euskara indarbertitzeko ahaleginari».

Legea «ez dago agortuta», Osa- ren hitzetan. «25 urteotako Euska- raren Legeak askotarako eman

du, eta oraindik are gehiago ere eman dezake. Herritarren gogoak ez du legearen eustormak gainez- katzea lortu, oraingo».

Kontseilua

«Legea garatzeko politikak ez dira egokiak izan»

Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak esan duenez, Euskararen Legea «aldaketa onu- ragarria» izan zen orain 25 urte. Hala, hainbat aurrerapauso egite- ko balio izan duela aitortu du. Bes- teak beste, euskararen estandari- zazioan, irakaskuntza-aren euskalduntzean egindako urra- tsak, euskal kulturen emandako aurrerapausoak eta euskalgintza- ko elkarteak laguntzea eta euskal komunikabideak sortzea nabar- mendu ditu.

Legeak alde onak dituela baina hainbat esparrutan hutsuneak dituela esan du. Euskararen Lege- ak definitzen duen euskararen estatusa «ez da egokia». «Ez da orekatua: gaztelania ezagutu beharrekoa da, eta euskara, ez», Mendigurenen hitzetan, horrek «funtsezko desberdintasunak» ezartzen ditu, eta normalizazio prozesua baldintzatzen du. Esku- bideen alorreko helburuak egoki formulaturik daudela uste du, baina eskubide horiek praktikan ondo ez betetzea salatu du. «Hau- tura handia dago legeak ezarrita- ko helburuen eta errealtatearen artean». Legearen formulazioari dagokionez, aditz zehatzgabe eta ebaluaezin asko erabiltzen da testu osoan. «Lege testuetan zehaztasuna ezinbestekoa da eba- luazioak egiteko», gogoratu du.

Legearen edukiez gainera, legea betetzeko helburuarekin abiatutako hizkuntz politiken era-



Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Aholku Batzorde osatu berriak orain dela gutxi Donostian.

ginkortasun falta salatu du Men- digurenek. «Hizkuntz politikek ez dute lortu, 25 urte pasatu ondoren, lortu ahal eta behar zuten egoera. Beraz, legea garatzeko politikak ez dira egokiak izan».

Mendigurenen ustean, legea egokitu egin beharko litzateke, es- tatus egokia ezarritik, formulazio zehatzagoak proposatuz, epeak finkatuz eta gaurko errealtaterara egokituz. Era berean, legearen egokitzapenak hizkuntz politika egoki eta eraginkorra eskatzen duela azaldu du, «horretan legeak eman zezakeena ez baita lortu, ezta hurrik eman ere». Borondate politiko falta izan dela azpimarratu du. «Hitz batean, ez da lortu eus- kaldunok geure hizkuntz eskubi- dea bermaturik izatea».

Ikastolen Elkarteak

«Hezkuntza-aren alorrean aukera galdua izan da»

Euskararen Legea indarrean eza- rri aurreko urteak gogora ekarri ditu Xabier Garagorri Ikastolen Elkarte Aholkulari Pedagogiko- ak. Izan ere, 1978. urtean irakas- kuntzako hizkuntz ereduaren propo- samena prestatu zuen aditu talde batek. Garai hartan, ikastolek ez zuten eredu finkorik, euskaraz ez zekiten ikasleei lagundu guran.

«Ereduen kontua egoera desatse- gin bat bezala bizi izan genuen». Baina eztabaida horrek eta Euska- raren Legearen ondorioz indarre- an jarri zen ereduaren sistemak «hausnarketarako aukera» eman zien ikastolei. 1990eko hamarka- dan eleaniztasunaren planteam- enduari ekin zioten ikastolek.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzko- an sortu zuten hizkuntz ereduaren sistemaren arrazoiak azaldu ditu Iñaki Etxezarretak, Ikastolen El- karteko zuzendariak. «Orduan, irakasleen %10 ziren euskaldu- nak. Gainera, guraso gehienek go- goetan ez zegoen ikastolen murgil- tze eredu. Horregatik asmatu zi- tuzten A, B eta D ereduak. Denbora irabazteko modua izan zen».

Irakaskuntza-aren alorrean, az- ken 25 urteetan irakasleak euskal- duntzeko «sekulako inbertsioa» egin dela nabarmendu du Etxeza- rretak. Hala ere, ikastolen mun- duak aurretik zabalduak izan ziren ez baliatzeagatik penatuta azaldu da. «Aukera galdua izan da. Baina gaur dugun emaitza ondo baloratu behar da. Oso herri gutxi izan lortu dute hain denbora gutxian hemen lortu dena».

Lortutako emaitzak onak izan arren egun indarrean dagoen hiz-



Osakidetzako oposizio batzuetan EHEK egindako protesta. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS